



Amiantodun fibrozementua



Neurriak

Profesionalek baino ezin ditzakete burutu fibrozementu amiantodun materialen bat askatzeko desmuntatze lanak. Amiantoaren Arriskupeko enpresen Erregistroan ikus daiteke zeintzuk diren gai lan horiek egiteko. Hortaz, amiantodun hondakin hauek ezin dira ekarri Garbigunera.

INOIZ ez hautsi materiala.

Materiala kendu edota garraitzeko, erabilpen bakarreko eskularruak eta maskarak erabili

Zuntzak ez askatzeko, bildu materiala plastikozko poltsa batean (Garbigunean eskatu daitezke).

Erabilpen bakarreko arropak erabili; arropa zaharra erabiltzea gomendatzen da; lanak amaitu ondoren, astindu gabe, poltsa batean sartu eta hondakinekin batera Garbigunera ekartzeko.

Zer egin behar da amiantodun fibrozementua duten hondakin eta objektuekin?

Partikularrek, ekarri ditzakete Garbigunera material txikiak (loreontziak, uralita plakak, hodiak...). Beti ere, honako baldintzak bete beharko dira:

- **Fibrozementu plakak:** 2 plaka gehienez (4 m2 eta 50 kg gehienez)
- **Elementu apaingarriak, adibidez loreontziak** (30 kg gehienez)
- **Hodiak** (gehienez 3 mL)

Zehaztutako kantitatetik gora ekartzeko, baimen berezia eskatu behar da.

Gogoratu, **profesionalek baino ezin ditzakete burutu fibrozementu amiantodun materialen bat askatzeko desmuntatze lanak. Beraz, hondakin horiek ezingo dira Garbigunera ekarri..**

JASOTZEKO BALDINTZAK

1. Zumaiako garbigunea: martxoak 26, maiatzak 28, uztaialak 30.
2. Aia-Orioko garbigunea: otsailak 27, apirilak 30, ekainak 25
3. Zarauzko garbigunea. Ez du jasotzen
4. Ordutegia: 9:00-13:30 / 16:30-18:00
5. Pertsona bakoitzeko jasoketa bat

INFORMAZIO GEHIAGO

943 89 08 08

harrera@urolakosta.eus



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Izan zaitetz arduratsua hondakinekin; zure, eta guztion osasunagatik !